

Mikrofabrikazio teknologiak.

2010/05/26

Datorren ekainaren 18an, Mikrofabrikazioaren III. Jardunaldi nazionala ospatuko da Madrilgo Industri Ingeniarien E.T.S. egoitzan. Jardunaldi hau MIKROMANUFAKTURING arloan abian daukagun Proiektu Berezi eta Estrategikoaren baitan antolatu da, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak lideratzen duen proiektua eta Berrikuntza Ministerioak finantzatu du partzialki, eta FEDER fondoekin kofinantzatu da.

Europako industri prospektibari buruzko azterketa nagusien arabera, munduan mikroosagaien eskaera nabarmen handituko da zenbait sektoretan, hala nola aeroespazialean, automobilgintzan, medikuntzan, elektronikan eta bioteknologian, besteak beste. Horrenbestez, mikrofabrikazioko teknologien aplikazioa jarduera estrategiko bihurtu da azaleratzen ari diren merkatuetan negozio eta produktu berritzaileak garatzeko.

Informazio gehiago nahi baduzu, sakatu hemen:

<http://www.mondragon.edu/bin/Doc/IIIJornadaNacionalMICROFABRICACION.pdf>

